

ERABAKIA, 2017ko azaroaren 30koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena aipatzen den lanpostua aldi baterako eginkizunen esleipenaren bidez betetzeko deialdian parte hartzeko **ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDA** onartzeko dena.

L 364

SGIkerreko teknikaria

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

Deialdia, UPV/EHUn gerentearen 2017ko azaroaren 10eko Erabakiaren bidez egin zen.

ARAU APLIKAGARRIAK

•Akordioa, 2013ko uztailaren 4koa, AZP lan kontratadunen plangintza batzordearena, AZPko lan kontratadunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeari buruzkoa.

•Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian).

Beraz, Gerentzia honek

ERABAKI DU

Aipatutako deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzea, Euskal Herriko Unibertsitatearen web-orrian. Hautaketa eta Hornikuntza. Barne-deialdiak.

Onartuak izan ez direnek, bi laneguneko epea izango dute zerrendak UPV/EHUko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, ez onartzea eragin duen arrazoia zuzentzeko

Gogorarazi nahi da UPV/EHUn erregistro orokorraren atalen ordutegia hauxe dela: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:30etara. Ostiraletan, udako lanaldian eta Aste Santuko eta Eguberrietako txandetan, 9:00etatik 13:00etara.

Leioan, 2017ko azaroaren 30ean

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia
(2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/ EHUko Gerentea,

Miren Lorea Bilbao Arteché



I. ERANSKINA

ONARTU ETA BAZTERTUEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA EGINKIZUNEN ESLEIPENA - 2017ko azaroaren 10eko DEIALDIA

46

L 364

SGikerreko teknikaria

Hor. 12

HE 3

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

(Gurakoei dagokien lehentasun-taldearen arabera ordenatua)

a) Deitutako lanpostuaren talde kategoria eta espezialitate bereko lan kontratudun langile finkoa.

EZ DAGO ATAL HONETAKO GURAKORIK

b) Deitutako lanpostuaren talde kategoria eta espezialitate bereko lan kontratudun aldi baterako langilea

ONARTUAK

16047193R RODRIGUEZ ALLER, JAVIER

BAZTERTUAK

INOR EZ